

Diskoak

IKER BARANDIARAN



Bike 3.0.
Batzuen artean.
Bilbao Kolektibo
Elektronikoa.
Iraupena: 35'16".
12 euro.

Gureak ditugun pasarteetan eraldaketa naturalak

BILBAO KOLEKTIBO ELEKTRONIKOA musika elektroniko sortzaileak ezagutzera emateko ekimena da, eta hau orain arte kaleratu duten hirugarren bilduma; bertsoak batzen dituen lehena. 80ko hamarkadak utzitako zama arindu edo luzatzeko lana da, hain gureak ditugun kantuak askatasunez eraldatzen dituelako. Eskorbutoaren *Mata la música* (Unai Gonzalez) gustatu zait, Vulpesen *Me gusta ser una zorra* (Mimoloco) after-punka ere bai;

baita Kortaturen *Sarri sarri* (Lab7) instrumental, Delirium Tremensen *Ikusi eta ikasi* (Planetaleta) eta, batez ere, La Pollaren *Ya no quiero ser yo* (Gose) rockeroagoa ere. Baina badira, baita ere, Barricada, Zarama, Cicatriz, RIP eta Hertzainak-en bestelako irakurketak ere. Eta hainbat protagonistak parte hartu dute. Beste pauso bat independentziara bidean...

<http://bikebilbao.wordpress.com>

Unai Gonzalez - Bike 3.0

«Lan hau egiteagatik kritikatuak izango ginela uste genuen, baina egileak pozik gelditu dira»

Zer dela-eta bururatu zitzaizuen RRV-ren eta 80ko punkaren kantuak bertsionatzea?

Aspaldiko ideia zen. Gu musika hori entzuten hazi ginen, nahiz eta denbora aurrera joan ahala beste estilo batzuk ere deskubritu genituen, tartean musika elektronikoa. Niretzat oso naturala izan da halako lan bat egitea.

Dagoeneko bazen ordua halako "sakrilegio" bat egiteko?

Musika elektronikoaren inguruan aurreiritzi asko dago oraindik gurean. Jendeak oraindik musika elektronikoa bakailaoarekin lotzen du, baina uste baino askoz irekiagoa da. Nahiz eta poliki-poliki pentsaera hori aldatzen doan, lan hau egiteagatik kritikatuak izango ginela uste genuen, batez ere talde horien aldetik. Baina, azkenean kontra-ko gertatu da; beldur apur bat genuen arren, guztiak pozik gelditu dira.

Nork egin du abestien aukeraketa? Aukeratutakoak dira esanguratsuenak?

Talde bakoitzak aukeratu du bertsioneatu behar zuen taldea eta abestia; arau bakarra zen abestia ez errepikatzea. Aukeratutako guztiak esanguratsuak direla uste dut, baina garrantzitsu batzuk kanpoan gelditu

dira. Abestiei dagokienez, berriz, klasikoak dauden arren, beste batzuk ia ezezagunak dira.

Zer da zure ustez garai hartako taldeek izan zuten gauza garrantzitsuenak?

Jarrera.

Omenduek harrera ona egin diote, ezta? Izan duzue anekdotarik?

Vulpeseko abeslari Mamenek esan zigun *Me gusta ser una zorra* abesten zuen azkeneko aldia zela; 17 urte zituenetik ezin zuela gainetik kendu eta aspertuta zegoela. Delirium Tremenseko Andonik, berriz, ez du bere taldea izan zenarekin ezer jakin nahi, itzultzeko jendeak egiten dien eskaeraz aspertuta dagoelako. Proiektua ondo azaldu genionean, baina, baiezkoa eman zigun. El Drogasek esku hartzea ere oso berezia izan zen. Are gehiago, gitarra ere gustura joko zuela esan, eta bat ekarri genion jo zezan; hala egin zuen. ■

